



## ALDIZKARI OFIZIALA

## BOLETIN OFICIAL

IX LEGISLATURA

IX AGINTALDIA

**Serie B Información, Control e Impulso**

**IV Proposición No de Norma**

Número 454a

Bilbao, 2014ko martiaren 21a

Bilbao, 21 de marzo de 2014

**Informazioa, Kontrola eta Sustapena B Saila**

**Arauz besteko proposamena**

**IV**

454a Alea

**ASUNTO:** Petición unánime del Pleno de Alonsotegi para que el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas lleve a cabo la fiscalización de la Sociedad Alonsotegi Eraikiz

**AUTOR:** Soto Aldalur, Irune

**Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas**

La Mesa de las Juntas Generales, en su sesión de fecha 18 de marzo de 2014, con relación al asunto de referencia, adoptó los siguientes Acuerdos:

**Tramitación:** Admitir a trámite.

**Calificación:** Conformidad con la calificación propuesta por el autor

**Órgano Destino de Tramitación:** Acción Social

**Procedimiento de Tramitación:** Normal

**Plazos:** Presentación de Enmiendas a la Proposición no de Norma: 7 días. **Finaliza** el 31 de marzo a las 10:00 horas.

**Otros acuerdos**

Ordenar la apertura del plazo de Enmiendas

Ordenar Publicación en el BOJJGG

Ordenar traslado a los efectos de lo previsto en la regulación aplicable

**Regulaciones:**

Reglamento: Artículo 153 y sgts.; Artículo 86

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 86 del Reglamento de la Cámara, se ordena su publicación para general conocimiento.

Sede de las Juntas Generales de Bizkaia, en Bilbao, 21 de marzo de 2014.- La Presidenta de las Juntas Generales, **Ana Madariaga Ugarte**

**A LA MESA DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA**

IRUNE SOTO ALDALUR, Portavoz del Grupo EHBildu, presenta la siguiente PROPOSICIÓN NO DE NORMA sobre la petición unánime del Pleno de Alonsotegi para que el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas lleve a cabo la fiscalización de las cuentas de la sociedad Alonsotegi Eraikiz.

**MOTIVACIÓN**

El ayuntamiento de Alonsotegi es uno de los más endeudados a nivel de Euskal Herria y, naturalmente, a nivel de Bizkaia. El origen del agujero económico que tiene padece tiene que ver con actividades relacionadas con el urbanismo, a consecuencia de la penosa gestión urbanística de la SAU Alonsotegi Eraikiz. Concretamente, el gobierno municipal adoptó en 2011 la decisión de disolver la sociedad, asumiendo el Ayuntamiento el agujero de 4,1 millones de euros.

**GAIA:** Alonsotegiko udalbatzak ahobatez Herri Kontuen Euskal Epaitegiari Alonsotegi Eraikiz sozietatearen inguruko kontu-ikuskapena egiteko eskaria

**EGILEA:** Soto Aldalur, Irune

**Bideraketarako onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltza**

Aitatutako gaia dala-ta, hurrengo Erabagiak hartu ditu Batzar Nagusietako Mahaiak 2014ko martiaren 18an izandako bileran:

**Bideraketea:** Bideraketarako onartzea

**Sailkapena:** Egileak proposatutako sailkapenagaz ados

**Organo hartzalea:** Gizarte Ekintzako Batzordea

**Procedura:** Arrunta

**Epea:** Arauz Besteko Proposamenari zuzenketa-eskeak aurkezteko: 7 egun. **Amaieroa:** martiaren 31ko 10:00etan.

**Beste erabagi batzuk**

Zuzenketa-eskeak aurkezteko epea edegiteko agintza

BBAn argitaratzeko agintza

Araudi aplikagarriak aurreikusitakoaren ondoreneta rako bialtzeko agintza

**Araudi oinarria:**

Araudia: 153. artik. eta hurreng.; 86. artikulua

Guztiak horren jakitun egon daitezkan, argitaratzea agintzen da, Batzar Nagusien Araudiaren 86. atalean zehaztutakoaren arabera.

Bilbon, Bizkaiko Batzar Nagusietako egoitzan, 2014ko martiaren 21ean.- Batzar Nagusietako Lehendakaria, **Ana Madariaga Ugarte**.

**BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO MAHAIARI**

IRUNE SOTO ALDALUREk, EHBildu taldeko talde-buruak, hurrengo ARAUZ BESTEKO PROPOSAMENA aurkezten du, Alonsotegiko udalbatzak ahobatez Herri Kontuen Euskal Epaitegiari Alonsotegi Eraikiz sozietatearen inguruko kontu-ikuskapena egiteko eskariaren inguru.

**ARRAZOIKETA**

Alonsotegiko udala Euskal Herri mailan eta noski, Bizkaia mailan udalerriko zorpetuenetarikoa da. Pairatzen duen zulo ekonomikoaren iturria hirigintzari loturiko jardueran dago, Alonsotegi Eraikiz SAUren kudeaketa urbanistiko penagarriaren ondotik. Hain zuen ere, 2011. urtean sozietatea disolbatzeko erabakia hartu zuen udal gobernuak eta 4,1 milioi eurotako zuloa udalak hartu zuen bere gain.

Esa decisión adoptada por el gobierno municipal se adoptó en contra del informe realizado por los técnicos municipales, lo cual ha reportado graves perjuicios económicos al Ayuntamiento, a la vez que las responsabilidades en torno a la probada gestión irresponsable e irregular de esa sociedad continúan aún sin aclararse totalmente.

Es difícil encontrar un informe tan certero y preciso por parte de unos técnicos municipales, donde se avisaba de manera precisa al gobierno municipal de diversas irregularidades, en el sentido de que no estaba en manera alguna justificada la disolución de la sociedad y la asunción de sus deudas por parte del Ayuntamiento, motivo por el que manifestaban su parecer contrario ante el proceso de disolución. Asimismo, consideraban imprescindible la elaboración previa de una fiscalización de cuentas externa en torno a esa sociedad, de manera que se reflejaran claramente cuáles serían los derechos y las obligaciones del Ayuntamiento.

No obstante, saltándose el parecer de los técnicos municipales, el gobierno municipal disolvió la sociedad y el Ayuntamiento asumió sus deudas, adoptando una decisión que en muy pocas ocasiones se produce (con el parecer contrario de los técnicos municipales).

En diciembre de 2011, el grupo municipal de EH Bildu presentó una moción para que se realizara una fiscalización de cuentas externa, moción aceptada por el pleno, con los votos en contra del grupo EAJ-PNV. El acuerdo no se materializó.

Hace unos meses, el pleno municipal aprobó POR UNANIMIDAD la solicitud de fiscalización de cuentas por parte del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, exigiendo una investigación urgente y en profundidad sobre las graves irregularidades manifestadas repetidamente en el informe en torno a las cuentas elaborado por los técnicos municipales y, consecuentemente, la aclaración de las responsabilidades que puedan subyacer en todo ello.

El 29 enero, el propio alcalde firmó la solicitud para que el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas llevara a cabo la fiscalización de las cuentas de la sociedad Alonsotegi Eraikiz (hoy por hoy, el Ayuntamiento tiene asumidos sus activos y pasivos). Asimismo, el TVCP presentó en enero su plan de fiscalización para el presente ejercicio. A la vista de la gravedad del caso y de que el Ayuntamiento ha solicitado por unanimidad la elaboración de dicho informe de fiscalización, resulta necesario que el TVCP, dentro de sus planes para el presente ejercicio, lleve a cabo la fiscalización de la sociedad Alonsotegi Eraikiz. Trascendiendo del nivel municipal, y habida cuenta de que también las Juntas Generales de Bizkaia tienen la potestad de elevar al TVCP peticiones de fiscalización, consideramos imprescindible que se solicite dicho informe.

Por todo ello, presentamos esta Proposición No de Norma:

1. Las Juntas Generales de Bizkaia instan Tribunal Vasco de Cuentas Públicas a que tome en consideración la petición unánime del pleno municipal de Alonsotegi solicitando la fiscalización de la sociedad Alonsotegi Eraikiz, y que lo incluya en su plan de fiscalización para el ejercicio 2014.
2. Las Juntas Generales de Bizkaia trasladarán este acuerdo al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, al Parlamento Vasco y al Ayuntamiento de Alonsotegi.

En Bilbao, 13 de marzo de 2014

**Irune Soto Aldalur,**  
Portavoz del Grupo EH Bildu

Udal gobernuak hartu erabaki hori, udal teknikariekin txostenen kontra hartu zen, eta honek udalari kalte ekonomiko larriak eragin dizkio, eta bide batez, sozietate horrek egin kudeaketa arduragabea eta irregular frogatuaren gaineko ardurak zein erantzukizunak erabat argitu barik daude oraindik.

Zaila da ikustea hain txosten zorrotz eta zehatz udal teknikari batzuen aldetik. Udal gobernuari zehatz mehatz hainbat irregularitasunen ohartarazpena egiten zitzaien, sozietatea disolbatzea eta udalak bere gain hartzea bertako zorrak ez zegoela inolaz ere justifikatua, eta hortaz, haien kontrako iritzia agertzen zuten disolbatze prozesu horren aurrean. Halaber, ezinbestekoa ikusten zuten ere, aurrez kanpo kontu-ikuskapena egitea sozietate horren inguruan, udalaren eskubide eta betebehar guztiak era argian islatzeko.

Bada, udal teknikarien iritzien gainetik, udal gobernuak sozietatea disolbatu eta udalak horren zorrak bere gain hartu zituen, oso gutxitan ematen den erabaki bat hartuz (udal teknikarien kontrako iritziarekin).

2011ko abenduan, EH Bildu taldeak kanpo kontu-ikuskaritza egiteko mozioa aurkezu eta onartu zuen udalatzak, EAJ-PNV taldearen kontrako bozkarekin. Erabaki hori ez zen gauzatu.

Orain dela hilabete batzuk, udalatzak AHO BATEZ onartu zuen Herri Kontuen Euskal Epaitegiari kontu-ikuskaritza eskatzea, eta hortaz, udal teknikariekin kontuei buruz egin zitzuten txostenetan behin eta berriz azalerazi diren irregularitasun larriei buruzko ikerketa azkar eta sakona egitea exijitzen du. Eta ondorioz, hortik aurrera horien atzean egon daitezkeen ardurak argitzea.

Urtarrilaren 29an alkateak berak sinatu zuen Herri Kontuen Euskal Epaitegiari Alonsotegi Eraikiz sozietatearen ikuskaritza egiteko eskaria (gaur egun udalak beronen aktibo zein pasiboak bere gain hartu ditu). Halaber, HKEEek urtarrilean urte honetan gauzatuko duen ikuskaritza plana aurkezu zuen. Ikusita kasu honen larritasuna eta aho batez udalak berak eskatu duela ikuskaritza hori, HKEEek urte honetako bere planean Alonsotegi Eraikiz sozietatearen ikuskaritza gauzatzea ezinbestekoa da, eta hortaz, udalaz haratago, Bizkaiko Batzar Nagusiek ere, HKEEri fiskalizaziorako eskariak egiteko eskumena aintzat hartuz, berau eskatzea ezinbestekoa da.

Hori dela eta, honako Arauz Besteko Proposamena aurkezten dugu,

1. Bizkaiko Batzar Nagusiek, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eskatzen diote Alonsotegiko udalatzak aho batez Alonsotegi Eraikiz sozietatearen ikuskaritza egiteko eskaria aintzat har dezala eta 2014. urteko ikuskaritza planean sartu dezala.

2. Bizkaiko Batzar Nagusiek Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, Eusko Legebiltzarrari eta Alonsotegiko udalari akordio honen berri emango die.

Bilbon, 2014ko martiaren 13AN

**Irune Soto Aldalur,**  
EH Bildu Taldeko Taldeburua